| 2. ERANSKINA: EUSKARA SAILA | ANEXO 2: ÁREA DE EUSKARA |
|---|---|

**2.1. OINARRI ARAUAK EUSKALTEGI-ETAKO EUSKARA IKASLEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO.**

**1. Xedea.**

Deialdi honen xedea hauxe da: 2024. urtean euskara ikastaroren bat egingo duten arrasatearrei bekak emateko baldintzak arautzea.

**2. Onuradunak.**

Oinarri hauen bidez arautzen diren dirulaguntzak ikastaroa egiten duten bitartean Arrasateko udalerrian erroldaturik dauden pertsona fisikoek eskatu ahal izango dituzte.

Programa honen aplikazio eremutik kanpo daude enpresa beharrei erantzuteko bereziki sortu diren ikastaldeetako pertsona juridiko nahiz fisikoak.

**3. Bete beharreko baldintzak.**

1.- Baldintzak.

Dirulaguntza jasotzeko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Arrasaten erroldaturik egotea gutxienez ikastaroa egin bitartean. Errefortzuen kasuan, Arrasateko ikastetxe batean matrikulatuta egotea nahikoa izango da.

**2.1. BASES DE CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA EL APRENDI-ZAJE DE EUSKERA EN LOS EUS-KALTEGIS.**

**1. Objeto**

Es objeto de la presente convocatoria la regulación de la concesión de becas para los arrasatearras que realicen cursos de aprendizaje de euskera durante el ejercicio de 2024.

**2. Personas beneficiarias**

Las subvenciones que se regulan a través de estas bases podrán ser solicitadas por aquellas personas físicas que estén empadronadas en el municipio de Arrasate durante la realización del curso.

Quedan excluidas del ámbito de aplicación del presente programa tanto las personas jurídicas como las personas físicas que pertenezcan a grupos de aprendizaje creados específicamente para atender

**3. Requisitos a cumplir.**

1.- Condiciones.

Para la percepción de la subvención se deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Estar empadronada o empadronado en Arrasate como mínimo durante la realización del curso. En el caso de niñas y niños inmigrantes, será suficiente estar cursando estudios en algún centro docente de Mondragon.

b) Beka lortzeko, gutxienez, %85eko asistentzia izan behar du ikasleak.

c) Eskatzailearen bizikidetza unitatearen diru sarrerak ezin izango dira ondoko baremoan jasotakoak baino handiagoak izan —dirulaguntzaren % 75 edo % 100 eskatu nahi bada—. Diru sarrerok kalkulatzeko orduan, bizikidetza unitateko kideen errentaren gaineko

| **Senide kopurua** | **2024a** |
|---|---|
| 1 | 14.548 € |
| 2 | 21.820 € |
| 3 | 28.370 € |
| 4 | 34.187 € |
| 5 | 39.266 € |
| 6 | 43.640 € |
| 7 | 47.271 € |
| 8 edo gehiago | 50.189 € |

d) Ikastaroa 2024an bukatu izana.

e) Autoikaskuntza programako ikasleek gutxienez 165 orduko modulua egin behar dute ikasturtean. Gainerakoan, beste ikasle guztientzat ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

f) Arrasatera etorri diren haur etorkinen kasuan bete beharreko baldintzak izango dira b) puntua eta Arrasateko ikastetxeren batean ikasten aritzea.

b) Para poder obtener la beca, el solicitante deberá tener una asistencia mínima del 85%.

c) La unidad convivencial a la que pertenece el solicitante no deberá superar los ingresos económicos recogidos en el siguiente baremo —si se quiere solicitar el 75 % o el 100 % de la subvención—. Los ingresos se calcularán teniendo en cuenta

| **Senide kopurua** | **2024a** |
|---|---|
| 1 | 14.548 € |
| 2 | 21.820 € |
| 3 | 28.370 € |
| 4 | 34.187 € |
| 5 | 39.266 € |
| 6 | 43.640 € |
| 7 | 47.271 € |
| 8 edo gehiago | 50.189 € |

d) Haber finalizado el curso dentro del año 2024.

e) El alumnado del programa de autoaprendizaje deberá realizar durante el curso académico, como mínimo, el módulo de 165 horas. Por lo demás, deberán cumplir las condiciones establecidas para el resto del alumnado.

f) Los requisitos a reunir en el caso de niñas y niños migrantes que han llegado al municipio de Mondragón serán los indicados en el punto b) y estar cursando estudios en algún centro docente de Mondragón.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Kodea** | CL24/02981 | **Udala** | Arrasate/Mondragón |
| **CUDO** | 000.0055.AAA1AFZY.N.GKJU | | |
| **URL** | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1AFZYN.GKJU | | |

Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.

2. Bizikidetza unitatea.

Oinarri-arau hauen ondorioetarako, bizikidetza unitatetzat jotzen da ohiko helbidean elkarrekin bizi diren pertsona guztiak; horretarako, biztanleen udal erroldako datuak hartuko dira kontuan.

Gurasoekin bizi diren 27 urtetik gorako beka eskatzaileak, ordea, kide bakarreko bizikidetza unitatetzat hartuko ditu udalak. Era berean, eskatzailearen etxe berean 27 urtetik gorako neba-arrebarik bizi bada, senide hori ez da hartuko bizikidetza unitateko kide konputagarritzat.

2. Unidad convivencial.

A los efectos de estas bases, se considera unidad convivencial la formada por todas aquellas personas que convivan en el domicilio habitual, para lo cual se tendrá en cuenta los datos del Padrón Municipal

No obstante, cuando las personas solicitantes sean mayores de 27 años y convivan con sus progenitores, el Ayuntamiento los considerará como unidad convivencial independiente. Asimismo, los hermanos y hermanas del solicitante que convivan en el mismo domicilio y tengan más de 27 años no serán computados como miembros de la unidad convivencial

**4. Aurkeztu beharreko agiriak.**

Eskaera ereduarekin batera, agiri hauek aurkeztu behar ditu eskatzaileak:

a) Bizikidetza ziurtagiria. Ziurtagiri hori Arrasateko Udalak berak egin behar duenez, ofizioz egiaztatuko da. Behin dirulaguntza eskaera aurkeztu ondoren, eskatzaileak datu hori egiaztatzeko baimena eman duela ulertuko da.

b) Matrikularen ordainagiria.

c) Euskaltegiek HABEk sinatutako "asistentzia fitxa" bidaliko dute, eskatzailearen asistentzia jakiteko.

d) Bizikidetza unitatea osatzen duten kide guztien errentaren gaineko aitorpenaren kopia.

e) Gainera, lan egiten ez duen 18 urtetik gorako seniderik izanez gero:

**4. Documentación a presentar**

Junto con el modelo de solicitud, la persona solicitante deberá presentar la siguiente documentación:

a) Certificado de convivencia. Como quiera que este documento debe ser emitido por el propio Ayuntamiento de Arrasate, se comprobará de oficio, considerándose que, al presentar la solicitud de subvención, la persona

b) Recibo de la matrícula.

c) El euskaltegi enviará el impreso "asistentzia fitxa" firmado por HABE, para calcular la asistencia de la persona solicitante.

d) Copia de la declaración de la renta de cada miembro que integran la unidad convivencial.

e) Además, en caso de existir algún familiar mayor de 18 años que no trabaje:

- Ikaslea bada, ikastetxearen agiria.

- Senidea langabezian badago, Lanbidek emandako agiria. Agiriak adierazi beharko du ea eskatzailea euskara ikasten aritu zen aldian lanik ez zeukan senideak langabeziako subsidiorik kobratu zuen edo ez, eta, kobratu bazuen, zenbat kobratu zuen.

**5. Eskaerak aurkezteko epea**

Egindako ikastaroa bukatu eta hilabeteko epean aurkeztu beharko dira eskaerak.

Edozelan ere, deialdi hau argitaratu aurretik bukatutako ikastaroen diru laguntzei dagokienez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdi hau argitaratzen denetik hilabeteko epean aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

**6. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea.**

Euskara zerbitzuak izapidetuko ditu eskaerak.

**7. Eskaerak baloratzeko irizpideak.**

Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Ohiko ikastaroak

- Bekaren zenbatekoa: eskatzaileak ordaindutako matrikularen prezioaren %75. Eskatzailea langabea, jubilatua edo ikaslea izanez gero, %100, 3.c atalean dauden baldintzak betez gero.

- Si es estudiante, certificado del centro docente.

- Si se encuentra en paro, certificación aportada por Lanbide. El certificado deberá indicar si el familiar en desempleo durante el periodo de aprendizaje de euskera percibió subsidio de desempleo, y en caso de cobrarlo, el importe.

**5. Plazo de presentación de las solicitudes**

Las solicitudes deberán ser presentadas dentro de un mes, contado a partir de la finalización del curso realizado.

En todo caso, para la subvención de cursos finalizados con anterioridad a la publicación de la presente convocatoria, se podrán presentar solicitudes de subvención en el plazo de un mes contado a partir de la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**6. Unidad administrativa encargada de la tramitación**

Las solicitudes serán tramitadas por el Servicio de Euskera

**7. Criterios de valoración de las solicitudes**

Para el cálculo de las ayudas a conceder se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

1. Cursos habituales

- El importe de la beca será el 75% del precio de matrícula abonado por el alumnado. La beca será el 100% del precio de matrícula para personas desempleadas, jubiladas y estudiantes, siempre y cuando

| | |
|---|---|
| | se cumplan los requisitos que aparecen en el apartado 3.c. |
| - Araudi honen 3.1.a eta b ataleko baldintzak betetzen dituzten beka eskatzaile guztiek matrikularen prezioaren %25 jasoko dute, nahiz eta beren bizikidetza unitateak araudi honen gehieneko sarrerak gainditu. | - A todas las personas solicitantes de beca que cumplan las condiciones del apartado 3.1.a y b se les devolverá el 25% del precio de la matrícula, aunque su unidad convivencial supere el máximo de ingresos fijado en esta normativa. |
| 2. Barnetegiko ikastaroak | 2. Cursos de internados |
| Barnetegiko ikastaroen kasuan, matrikularen prezioaren erdia izango da bekaren zenbatekoa. | En caso de cursos de internados, el importe de la beca será la mitad del precio de matrícula. |
| - Araudi honen 3.1.a eta b ataleko baldintzak betetzen dituzten beka eskatzaile guztiek matrikularen prezioaren %25 jasoko dute, nahiz eta beren bizikidetza unitateak araudi honen gehieneko sarrerak gainditu. | - A todas las personas solicitantes de beca que cumplan las condiciones del apartado 3.1.a y b se les devolverá el 25% del precio de la matrícula, aunque su unidad convivencial supere el máximo de ingresos fijado en esta normativa. |
| 3. Errefortzu eskolak | 3. Clases de refuerzo |
| Haur eta nerabeentzako errefortzu eskolen kasuan, %85eko asistentzia izanez gero, matrikula osorik bueltatuko zaie. | En el caso de clases de refuerzo para niñ@s y adolescentes, se devolverá la matrícula íntegra, siempre y cuando la asistencia sea del 85%. |
| 4. Gainerako ikastaroetarako | 4. Otros cursos |
| Udalak hala iritziz gero, beste irizpide batzuk erabili ahal izango ditu bekaren zenbatekoa erabakitzeko, eskatzaileak egindako ikastaroaren ezaugarriak kontuan izanik. | El Ayuntamiento, si lo estima oportuno, podrá utilizar otros criterios de cuantificación de la beca, teniendo en cuenta las características del curso realizado por la persona solicitante. |
| **8. Aurrekontua.** | **8. Presupuesto.** |
| Programa honen bidez deitutako diru laguntzen zenbatekoa 9.400 €-koa da, eta “1 0210.480.335.10.01 – Euskarako bekak” kontu-sailaren kontura finantzatuko da. | El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 9.400 €, y será financiado con |

cargo a la partida presupuestaria "1 0210.480.335.10.01 – Becas Euskara".

Aurrekontuaren zenbatekoa ez bada nahikoa dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten eskaera guztiei erantzuteko, handitu egingo da kopuru hori, udal aurrekontua betearazteko oinarri-arauetan kredituak aldatzeko xedatzen diren mekanismoen bidez.

Si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de solicitudes con derecho a ayuda, se procederá, a través de los mecanismos de modificación de créditos previstos en las bases de ejecución del Presupuesto Municipal, a su oportuna ampliación.

**9. Dirulaguntzak justifikatzea**

Oinarri-arau espezifiko hauen 4. artikuluan eskatzen diren agirien bidez justifikatuko dira dirulaguntzak; agiriok dirulaguntza eskaerarekin batera aurkeztu behar dira.

**9. Justificación de las subvenciones**

Las subvenciones serán justificadas mediante los documentos requeridos en el artículo 4 de las presentes bases específicas, a presentar juntamente con la solicitud de subvención.

**10. Ordaintzeko modua eta epeak**

Justifikatu ondoren, dirulaguntza ordainketa bakar baten bidez emango da, dirulaguntza ematea erabaki eta hilabeteko epean.

**10. Forma y plazos de pago**

La subvención será abonada, previa justificación, en un único pago, en el plazo de un mes contado a partir de la adopción del acuerdo de concesión.

**11. Klausula gehigarria**

Oinarri-arau espezifiko hauetan berariaz jasotzen ez diren gai guztietan, deialdiaren oinarri-arau orokorretan xedatutakoari jarraituko zaio.

Halaber, Diru laguntzei buruzko Udal Ordenantzari, Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorrari eta bat datozen gainontzeko lege xedapenei jarraituko zaie.

**11. Cláusula adicional**

En todo lo no recogido expresamente en las presentes bases específicas, se estará a lo dispuesto en las bases generales de la convocatoria.

Asimismo, regirán la Ordenanza Municipal de Subvenciones y la Ley 38/2003, General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes.